

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2024ko abenduaren 19an onartutako 2024-2025 ikasturtean bitartean aldirako Vitoria-Gasteizko ikastetxeetako berdeguneetan hezkuntza-ekin-tzak egiteko dirulaguntzen deialdiaren ebazpenaren laburpena

BDNS (Identif.): 809798.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazio-nalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convo-catoria/809798>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean kontsulta daiteke.

Lehena. Erakunde onuradunak

Betebehar hauek betetzen dituzten ikastetxeek eta bertako familia-elkarteei eskuratu ahal izango dute dirulaguntza:

- Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatuta egotea edo, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udale-rrian errolatuta egotea.
- Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak beteta edukitzea.
- Ikastetxean ikastetxeko berdeguneekin loturiko hezkuntza-proiektu bat abian egotea edo abian jartzea 2024ko irailaren 4tik eta 2024ko irailetik 2025eko ekainera bitartean.
- Jarduera horiek burutzeko faktura bidez egiaztatu daitezkeen gastuak egin izana 2024ko irailetik 2025eko ekainera bitartean, hezkuntza-proiektuari estu-estu lotuak.

Bigarrena. Helburua

Dirulaguntza-deialdi honen xedea da Vitoria-Gasteizko ikastetxeei eta ikastetxe horietako familia-elkarteei laguntza ekonomikoa ematea ikastetxeetako berdeguneetan hezkuntza-proiek-tuak martxan jarri ahal izateko 2024-2025 ikasturtean.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2024ko aben-duaren 19an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 20.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Lagun-tzeko Bulegoetan 2025eko ekainaren 20a baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 20a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
BORJA RODRÍGUEZ RAMAJO